Zalain Zokoko pilota-plaza

Larunen harateko aldeko gure senideak besta ospatzen ari ziren bitartean, Bigarren Mundu Gerra akabo zelako, Alkaiagan eta Zalain Zokon gatazkaren trumoiak aditzen ziren. Ez zuten segitu nahi lesakarrak izaten, eta sinadurak biltzen ari ziren Berako herriarekin juntatzeko. Batzuen ustez horrek bentajak ekarriko zituen, baina denak ez zeuden konforme. Normala!

Hortxe-hortxe ibili ziren, baina aldaketa ez zen etorri. Bi auzoak lehengo toki berean gelditu ziren: Lesakaren mende. Horren gaineko artikulu polita eskribitu zuten Retegik eta Anikuk (horrela sinatzen zuten) Berako Besten 1981eko programan. Kontu horiek 1946. urtearen inguruan izan zirela erraten zuten lerro haietan.

Geroztik, bi auzoek lehen bezala segitu zuten, baina saltsa hura guzia zela medio, Lesakako Herriko Etxeak pentsatu zuen bi auzoei sari batzuk ematea. Kontra zeudenei, isilarazteko; eta euren alde zeudenei, eskerrak emateko.

Alde batetik, ur-sarea paratzeko dirua eman zien; nahiz eta gero auzoko jendeak auzolanean plantatu beharko zuen instalazio guzia. Izanez ere, ondoan ikusten zituzten Berako auzoetako etxeetan bazuten ura, baina Zalain Zoko eta Alkaiagako etxeetara oraindik ez zen ailegatu. Alkaiagan, ideia bat egiteko, Uskaldapako errekatik ekartzen zuten auzo osora, goititik hasi eta beheitiraino, Bidasoraino, baina jendeak ezin zuen edateko erabili; edatekoa Bezerrotik eta Harrintzo ondoko San Juan iturritik hartzen omen zuten. Aitzinamendu handia izan zen ura etxeetara sartzea! Hori kontsegitzeko bederen balio izan zuen aiuntamentuari hordago jotzeko atrebentziak.

Baina hori guttixko iduritu nonbait, eta bertze zerbait gehiago emateko prest agertu ziren Lesakako Udaleko agintariak. Zalainzokotarrei zer nahi zuten aukeratzeko erran zieten: zubi bat edo frontoi bat.

Zalain Zokon ez zuten zubirik Bidasoa gurutzatzeko. Zalainzokotarrek eta zalainberatarrek txalantan ibili behar izaten zuten alde batetik bertzera pasatzeko. Gauza ederra izaten ahal zen auzoarentzat pasabidea paratzea. Zalainzokotarrek, ordea, ezetz erran omen zuten. Ez zutela zubirik nahi, beldur zirelako ez ote ziren zalainberatarrak aiseago pasatuko haien aldera, eta orduan haiekin partitu beharko zituztela mendiko ondasunak: otea, iratzea eta bertze. Ez zuten arrazoirik falta, denbora hartan otea eta iratzea, konparazio batera, hagitz gauza estimatuak baitziren gure baserritarrentzat!

Frontoirik ere ez zuten, eta huraxe nahiago bertako gizon-emakumeak. Pilotalekua egiten bazieten, hagitz kontent!

Horrela egin zuten Zalain Zokon frontoi berria, 1948ko apirilaren lauan inauguratu zena.

Egun hartako kronika zoragarria *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak* liburuan harrapatu dut, bertsotan emana. Hementxe duzue, liburuan ageri den bezalaxe paratua. Irakurri eta gozatu:

MIKEL TABERNA IRAZOKI, "KAPI"

PELOTA-PLAZA BERRIA (Paulo Yanziren bertsoak)

"Lesaka'ko Zalain auzoan pelota-leku berria egin zuten.
Lendabaiziko, partidu au izandu zen: Antonio ta Vitiri, Fagoaga ta Erro'ren kontra"
(Pepito Yanziren hitzak)

1/ Bertso berri jartzeko
naute enkargatu,
gusto orren egitera
biar det saiatu;
nola fronton berri bat
den inaguratu,
ango pasadizua
biar dela kantatu,
Zalañ'go auzo ori
naizikan goratu.

2/ Apirillaren laua zen
igande-eguna
Zalañ'ara juan eta
pasatu genduna;
musik-soñu ederrakiñ
baitare ttunttuna,
ango gazte dantzari-
en edertasuna,
bazagon soñu alai
ok zeñek entzuna.

3/ Trena baten betian
jende asko juan zan,
beren oñez ere juanak
beste asko bazan;
irrintzi eta kantari,
asko berriz dantzan,
izugarrizko diber-
siyua izan zan,
ikusi etzan ainbeste
auzo artako plazan.

4/ Lenikan jokatu zen
pelot-partidua,
ikustiagatik bazen
jende asko bildua,
uste det bazegola
naiko motibua;
ikusi zanian Anto-
nion latigua,
laster zarra orren alde
jarri zen dirua.

5/ Antonio Vitiri'kiñ
mallaz ez da jatxi,
beste aldetik ziraden
Erro eta Patxi;
Antoniok joz paretak
nai zituen autsi,
bere abillidadiak
ditu erakutsi,
zartu eta're orrentzat
kontrariyo gutxi.

6/ Beste ikuskizuna
ezpat-dantzariak,
poza artu zuten auzo ar-
tako gazteriak;
bertako neskatx bikañak
parerik gabiak,
edoziñen aurreko
egoki jantziyak,
oiekiñ ateri ziran
zortzikolariyak.

7/ Lenikan zortzikua ta
gero fandanguak,
lengo zarra aien oiturak
ez dira orainguak;
ariñ aski goratuaz
bastante zanguak,
agertu bitartian
gona-barrenguak ...
azkar mugitzen ziraden,
etzauden mainguak.

8/ Aniko'n etxian zuten
askondako jana,
neskatx gaxua aiek
egiñ zuten lana;
asetziagatik bazan
asko arat juana,
etxe orrek badauka
aspaldiko fama,
kontentuz ateria da
andik jende dana.

9/ Bi aizpak aritu ziren
mai denak serbitzen,
lan ederra izandu zuten
ainbeste ornitzen;
arat eta onatian
etziran gelditzen,
biar denian badakite
zanguak mugitzen,
ikasiak dirade
ariñ aski ibiltzen.

10/ Iturri'n etxea ori
leku sonatua,
asko gazteri badago
an kafia artua;
kontua galdetu eta
dena pagatua,
neskatx gazte artaz bada
asko gustatua,
izango da moñoñ ori
zeñek eskatua.

11/ Gauzak esaten ari naiz
biar den bezala,
Oletxe orretan ere
da jende leiala;
eguna aretan egiñ
zuten egiñala,
esan dute an ezeren
faltikan etzala,
maian jarri orduko
jana beriala.

12/ Jan ta edan naikua ta
ondo serbitua,
ainbeste gizonendako
badu meritua;
ezeren faltik etzala
daukat aditua,
jendia oso konforme
dela gelditua:
gutxi pagatu eta
ondo ornitua.

13/ Agur, presente ziñaten
autoridadiak,
militar eta paisano
baita abadiak,
agur, pelotari ta
ezpat-dantzariak;
jango ziñuzten nik baño
bokado obiak,
on dizutela denari
ango bazkariak.

14/ Agur Zalañdar denari,
beste bat artian,
Jainkuen graziyan bizi
zaitezte pakian;
amoriyua daukagu
biotzan betian,
poza artutzen degu
zuek ikustian,
berriz juango gerade
datorren urtian.

Urte batzuk geroago ere nahasi zen berriz bi auzo errebeldeen eta Lesakako Udalaren arteko giroa. Trena gelditu (1956) eta burdinbidea urratu ondotik, auzoetako bide printzipalak nahiko gaizki gelditu ziren. Protestak berriz ere zerbaitetarako balio izan zuen, eta "trenabidea" erraten dioguna asfaltatu zuen Herriko Etxeak. Guttik jakinen duzue auzobide horren puska batek kategoria handiko izena zuela: *Avenida de Ramos Sarobe* (orduko alkatearen oroigarri). Harrapazak hori! Baina hori bertze istorio bat da…

MIKEL TABERNA IRAZOKI, "KAPI"